

KARMEL

VIII.º GN. URTEA

BOSTGARREN ATALA

(LARREA - ZORNOTZA)

Buru ta biotz

Buru ta biotz gara gizonok. Adimen eta naimen obeto ez ete? Gogai, oldozkun, burutapen, bulko ta abar, burua dabe sortoe: zauskada, zirriada, sentimentu, barnezirkin eta abar, biotzcan jaio oi dira.

Sarritxo esan oi danez, bulko ta burutapenak darabille mundua. Baiña egia ete? Biotzak darabillela obeto ez ete legoke esan da? Baietz, nik uste. Idazle trebe batek onela: «Begiak itxi daikeguz, argirik ez ikusteko; adimena urrindu be bai egia ulertzetik». Adimenak ba-dau indarra bere elburua —egi ntsa aurki— jaristeko. Baiña giza-itzalez lainotu ezkeru, nekez arekin jabetuko. Begi lausotuak ezin argia ikusi.

Izatez goitiko bizitzan, esate baterako, fidea Jainkoak egindako doai berezia dogu, ta au artzeko, soloan lurra lez, adimen-alorra gertau egin bear, nai-ta-ez. Errazoi ugari ta albora-eziñak euki arren, sinisteari nuko egin daikeogu; bai ta galdu be egin daikegu, egun zoritsu baten onen gizonkiro besarkatua. Zenbat onelako! Ta ezta arri-tzekoa. Judas'i jazoa gogora ekarri. Zek nts egin ete eutson?

Baiña, zori onez, Jainko-errukiak jota bi-

de onera ekarriak askoz geiago ditugu; begira, Tarso'ko Paul'gandik asi ta oraintsu egunerokoetan datozanetaraño. Oneitako asko lainotan galduta, bide okerrez ibilliak dituzu, ta luzaro ibilli be. Alan eta guzti, gaitza itxi, laino barrena urratu ta Kristo'ren maitale zintzo biurtu dira. Onein sailla, oso aundia.

Eta gizon onein adin-eragite, atzera-aurrera ta gora-beretan biotza ez ete da inoiz tarteratu? Bai, ta ez urri be. Giza-adin-lezara eltzeko, biotza dogu izan be bide artez eta laburrena.

Ba-dira beste batzuk gogozkoitsuak; ez dabe argirik nai, ta orrelaxe legokez bizi osoan, egun oroigarri baten goitiko zauskada ixillak inarrosi, astindu ta itxartuko eza-litu. Onelakoak illunpea gurago dabe argi dizditsua baiño. Griña edo joera gaiztoen batek erpe artean artzen dauz, ta jakitun ta naitara era orretan diraue, goitiko egiari muxin egiñik.

Sarri askotan, bada, adimenera eltzeko biotza irabazi bear, nai-ta-ez. Itzak baiño len egiñak. Maitasunak leundu oi ditu bide latzak.